

IBT-CRI Cocherito de Bilbao

Urteko plana

2024-2025 Ikasturtea

SARRERA

2024/2025 ikasturtea plantilla egonkor batekin hasten da, joan den ikasturteko ZZEE-en deialdiari esker, urtez urte COCura ateratzen ziren 14 plazak betetzeko. Gainera, irakaskuntza-funtzioan sartzeko egonkortze-prozesuari esker, Bilborako IBTak sortzeko dekretuak aipatzen dituen 19 plazetatik, 18 karrerako funtzionarioek betetzen dituzte. Honetaz gain, ikasturte honetako berriak diren bi irakasleek esperientzia dute, aurretik lan egin baitute IBT honetan.

Guzti honek aukera ematen du zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta irakasleek jarduera-eremu guztietan aurre egin behar dieten zeregin guztiei jarraipena emateko: ikasleentzako arreta, hezkuntza-komunitateari aholkularitza, materialen ekoizpena eta ikerketa eta irakaskuntzari laguntza ere, urteko planaren bidez: helburu orokorrak aukeratzen eta hobetzeko plana diseinatzen.

2

HELBURU OROKORRAK

1. Omnipage programak eskaintzen dizkigun aukerak ikertzen jarraitzea, egokitu beharreko testuak lantzeko, irakasleen eskura dagoen postu bat diseinatzeko.
2. View Tactile software-aren (Index Everest inprimagailurako marrazketa-programa) funtzionamendua aztertzea, eta inprimatzeko formatuak diseinatzeko dituen aukerak baloratzea, ikasleen beharren arabera (testua, grafikoak, irudiak, etabar).
3. Ikusmen urritasuna duten ikasleen irakurtzeko abiadura neurtzeko irakurgai berriak aukeratu eta egokitu, orain arte erabilitakoak forman eta edukietan desegokiak izategatik.
4. Familia-eskola berriro martxan jarri Hezkuntza goiztiarreko familiei ikusmen urritasunarekin lotutako ezagutzak eta orientabideak emanaz desgaitasunari egokitzeko prozesuan laguntzeko.
5. Ikusmen-desgaitasuna duten ikasle guztien ukimen-pertzepzioa garatzeko eta ohiko gelan indartzeko premia eta garrantzia baloratzea, IBTko irizpide komunak ezartzeko.

3

HOBKUNTZA PLANA

KPB

- ✓ Galdetegi estandar labur bat egitea, ikasturte bakoitzean IBTko erabiltzaileen (ikasleak, familiak, ikastetxeak) gogobetetze-maila ezagutzeko.

Hezkuntza baliabideetako batzordea eta Tifloteknologiaren instruktorea

- ✓ Hezkuntza-baliabideen eta tifloteknologiaren site_ak aztertzea, elkarrekin berrantolatzeko eta errepikapenak saihesteko asmoarekin.
- ✓ Intraneteko Hezkuntza baliabideak eta Tifloteknologia site-ak berrantolatu, elkartu eta tifloteknologia azpisite bihurtu.

Transkriptorak eta zientzien arloko erreferenteak

- ✓ Fisika, matematika eta kimikaren signografia eguneratu eta intraneten argitaratu. Eranskina egitea Edico gidaliburua osatzeko.

Lan-taldea

- ✓ Ikusmen urritasuna duten ikasleentzako curriculum espezifikoko ebaluazio-irizpideak eta adierazleak euskaratu.

Liburutegia

- ✓ Mantenu lanak egin Braille liburuaren irudietan (erliebe eta testuretan).

Haur Hezkuntzako etapa

- ✓ Ikusmen urritasuna edoitsuak diren ikasleekin irteerak egiteko orientabideak proposatzen dituen dokumentua joratu.
- ✓ Haur hezkuntza etaparako patio ordurako egokiak diren jolas inklusiboen proposamena.

Transkripzioa

- ✓ Apunteak Excelen erregistratzea, bakoitzari bere kodea esleituz apunteak, erregistro bat eramateko eta kontrolatzeko.

4

- ✓ Literatura-liburuak biltzen eta transkribatzen jarraitzea, funts bibliografikoa handitzeko eta eguneratzeko.

Bigarren hezkuntzako etapa

- ✓ Itsutasuna eta ikusmen murriztua duten ikasleen orientazio akademiko-profesionaleko prozesuari buruzko galdetegi bat egitea, IBT-CRIko profesionali zuzendua, ikastetxeetan orientazio-zerbitzuarekin koordinatuta egiten den prozesua ezagutzeko, beharrezkotzat jotzen bada hobekuntzak proposatzeko.

FORMAKUNTZA PLANA

ONCEko mintegiak: Teknologia

Formakuntzak

- ✓ ONCEko hasierako formakuntza profesional berrientzat. 2. maila (Madrilen, irailean). Bertaratzeak Aniztasun eta Inklusio Zuzendaritzaren oniritzia eman dio onartua izan den irakasleari.
- ✓ IBTko formakuntza: beharrezkoak izan diren formakuntza-saio ikasturteko memorian bilduko dira.
- ✓ Digitalizazio ikastaroak ibilbide guztietan: A2 ikastaroa azarotik maiatzara arte izango da, B1 urtarriletik martxora eta B2 martxotik maiatzara.

ANTOLAKUNTZA

Egutegia


	Jai-egunak
Iraila	
Urria	31a
Azaroa	1a
Abendua	6a; 23tik 31ra arte
Urtarrila	1etik 6ra arte
Otsaila	
Martxoa	3tik 5era arte
Apirila	14tik 25era arte
Maiatza	1a eta 2a
Ekaina	

7

Ordutegia

Astelehenetik Ostegunera: 9.00etatik 16.30etara

Ostiralean: 8.30etatik 15.00etara



IKASLEGOARENGANAKO ARRETA

IBTko plantilla honako hauek osatzen dute: 25 irakasle teknikari, materiala transkribatzeko edo egokitzekeo 3 teknikari eta zuzendaria, guztiak Hezkuntza Sailekoak.

Hezkuntza Sailaren eta ONCEren arteko lankidetzaren barruan, IBT-CRIn irakaskuntza-teknikari batek eta 2 teknikari espezialistak betetzen dituzte dagozkien eginkizunak: tifloteknologiako instruktoreak eta oinarrizko errehabilitazioko teknikariak.

24/25 ikasturtean, gaurko datarekin, 236 ikasle daude, etapaka honela banatuta:

- Haur hezkuntza: 36 ikasle
- Derrigorrezko hezkuntza: 134 ikasle
- Batxilergoa: 5 ikasle
- Zereginen ikaskuntzarako gela: 14 ikasle
- Lanbide heziketa: 15 ikasle
- Helduen etengabeko hezkuntza: 6 ikasle
- HEO: 2 ikasle
- Hezkuntza bereziko ikastetxeak: 24 ikasle

Hezkuntza Goiztiarreko zerbitzuko ikasle goa Haur Hezkuntzako etapan zenbatuta daude. Une honetan, 15 ikasle daude, horietako 8 eskolatua daude 2 eta 3 urteko geletan, eta, beraz, ikastetxeekin koordinazioak mantenduko dira.

4 urtetik gorako ikasleei arreta ikastetxeetan bertan ematen zaie, irakasleei esleitzen zaizkien **ibiltarritza**-eremuak sortuz. Eremu horiek egiteko hainbat irizpide hartzen dira kontuan, hala nola hurbiltasun geografikoa, asteko saio-kopuruaren oreka edo ikaslearen premia mota. Eremu bakoitza irakasle bati esleitzen zaio. Irakasle bakoitzak ikasle bakoitzarentzako jardun-plana jasoko du banakako arreta-programan, aldeztu aurretik egindako balorazioaren arabera. Plan horrek ikaslearen arreta (zuzena ala jarraipena), familiarekiko harremana eta ikastetxearekiko koordinazioa biltzen ditu.

Ikastetxe espezifikoetan eskolatutako ikasleentzako arreta, irizpide orokor gisa, jarraipen-modalitatearen barruan sartzen da. Arreta hori hezkuntzako profesionalei eta ikusmen-hondarraren funtzionaltasuna baloratzeari zuzenduta dago, bai eta, behar izanez gero, materialak eta baliabideak hornitzeari ere.

Materialak eta baliabideak

Funtsezko beste alderdi bat ikasleei curriculum arruntean sartzeko aukera bermatzea da. Helburu horrekin,

- Ikasketa-postuak pertsonalizatzen dira, hainbat baliabiderekin: eramangarriak, arbelera sartzeko ordenagailu-pantailak, atrilak, mahai irekiak, pantaila-ikuskatzaileak eta -zabaltzaileak, audio-erreproduktoreak eta abar.
- Materialak eta testuak egokitzen dira, ikasle bakoitzak lehentasunez ikasteko (ikusmena, ukimena, entzumena);
- Material egokituak, osagarriak edo beste material batzuen alternatiboak ematen dira curriculum-arlo arruntetarako.

10